

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARROIABEKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Behin betiko onestea auzolanak arautzen dituen ordenantza fiskalaren aldaketa

Arroiabeko Administrazio Batzarrak, 2026ko maiatzaren 25ean egindako bilkuran, hasieran onetsi zuen auzolanen ordenantza aldatzeko espedienteak.

Erabaki hori jendaurrean jarri zen 2026ko uztailaren 1eko ALHAOn (74. zk.) argitaratutako iragarkiaren bidez, 30 eguneko legezko epean, eta aldi horretan ez zen erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu. Horren ondorioz, behin-behineko erabaki hori behin betiko bihurtzen da automatikoki, bat etorritoki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testuategina onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 19. artikuluan xedatutakoarekin.

Foru dekretu arauemaile horren 19. artikuluan ezarritakoa betez, jarraian argitaratzen da aldaketaren testu osoa:

Auzolanak arautzen dituen ordenantza

1. artikulua. Xedea

Ordenantza honek arautzen ditu kontzejuko auzolanak, denen onerako norberak egin beharreko nahitaezko prestazioak baitira, bat etorritoki Arabako Kontzejuen martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauak 44. artikuluan xedatzen duenarekin. Kontzejua da berezko nortasun juridikoa duen eta bere lurralde mugapean jurisdikzioa duen toki erakundea.

2. artikulua. Definizioak

2.1. Auzotarren familia unitatea: etxe berean bizi diren pertsonen multzoa; horietako bat, gutxienez, kontzeju erroldan inskribatuta egon behar da, urtean zazpi hilabete baino gehiago bizi delako.

2.2. Bizilagunak: edozein tituluren bidez (jabetza, errentamendua, gozamina edo lagapena) kontzejuan etxebizitzaren bat duten pertsonak edo pertsona taldeak, familia loturak izan ala ez, erroldan edozein inskripzio dutela ere.

2.3. Auzolana: kontzejuko ondasunak eta zerbitzuak eraikitzeko, konpontzeko edo mantentzeko onura publikoko obra edo jarduera. Sailkapena:

2.3.1. Ohiko auzolanak: zerbitzu publikoak egoera onean egoteko ohiko zereginak. Hauek dira:

- Herri barruko bide publikoak hobetu eta garbitzea.
- Saneamenduak, estoldak, lorategiak, iturriak eta putzuak mantentzea.
- Ur sarea konpontzea urak jatorrian biltzen diren lekutik etxeetako hartuneetaraino.
- Kontzejua eraikinetan eta leku publikoak garbitzea.
- Lurraldean pertsonentzat arriskuak saihesteko jarduerak.
- Landa bideak, baso bideak eta zidorrak ireki eta kontserbatzea.
- Hilerria hobetu eta garbitzea.
- Denen onerako beharrezkoa den beste edozein ekintza.

2.3.2. Ezohiko auzolanak: hondamendi, uholde edo suteen ondoriozko jarduketak.

3. artikulua. Behartuta dauden pertsonak eta salbuetsiak

3.1. Nahitaezko izaera: auzoko familia unitate bakoitzeko edo bizilagun talde bakoitzeko kide batek, gutxienez, nahitaez joan beharra duela ezartzen da.

3.2. Adinagatik salbuestea: prestazio fisikotik salbuetsita daude kide guztiak 18 urtetik beherakoak edo 65 urtetik gorakoak diren unitateak.

— Muga: 65 urtetik beherako senideak edo ondorengoak ohiko bizileku iraunkor batean bizi badira etxebizitzan, unitateak ez du salbuespen hori izango.

3.3. Osasunagatik salbuestea: salbuetsita daude auzolan egunean gaixorik edo ezintasun egoeran dauden pertsonak; presidenteari dagokion mediku ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

3.4. Aprobetxamendu bereziak: aprobetxamendu espezifikoak dituztenak (luberrak, egurketak, etab.) behartuta daude ondasun horiei eragiten dieten auzolanetan parte hartzera.

4. artikulua. Deialdia

4.1. Prozedura: lehendakariak egingo du deialdia, eta zehaztuko du zer, non, noiz egin eta zein tresnarekin joan.

4.2. Hedabideak: iragarki taulan argitaratuko da iragarkia, eta ohiko bitarteko digitalen bidez zabaldu ahal izango da, behar besteko aurrerapenarekin. Aparteko auzolanek ez dute aurrerapenik beharko.

5. artikulua. Auzolanak nola egin

5.1. Gauzatzea eta erregistratzea: bertaratutako pertsonen zehaztutako erremintak edo makineria eramango dituzte. Auzolanen liburu ofizial bat eramango da, jardunaldi bakoitzeko bertaratzea eta gorabeherak erregistratzeko.

5.2. Asegurua eta lan harremana: kontzejuak istripu aseguru bat hitzartuko du parte hartzaile guztientzat (65 urtetik gorako boluntarioak barne). Auzolanak ez du lan harremanik sortzen.

6. artikulua. Araubide ekonomikoa eta libre geratzek

6.1. Libre geratzeko moduak: gai den beste pertsona bat bidaltzea, ordezkotza auzolan bat egitea (hutsegitea justifikatu bada) edo konpentsazio ekonomikoa.

6.2. Orduko konpentsazioa: 10,00 euro ordainduko dira egin ez den ordu bakoitzeko, eta kopuru hori eguneratu egingo da INEk aurreko urterako argitaratutako Kontsumoko Prezioen Indizearen (KPI) arabera. Aldaketa negatiboa bada, zenbatekoa ez da aldatuko.

6.3. Likidazioa: lehendakariak auzolanak egin eta hurrengo urteko lehenengo hiruhilekoan egin eta jakinaraziko ditu libre geratzeagatik likidazioak.

6.4. Nahitaezko kobrantza: ez ordaintzea bide exekutibotik eskatuko da, indarrean dagoen diru bilketa araudiaren eta kontzejuen foru arauaren arabera.

6.5. Ez-bertaratze partziala: arrazoi justifikaturik gabe ez-bertaratze osoak edo partzialak konpentsazio ekonomiko osoa ordaintzeko betebeharra dakar.

7. artikulua. Ordaina ematea

Parte hartzeko betebeharra dutenek diru konpentsazio ekonomikoak jaso ahal izango dituzte lanek ematen dizkieten kalteak direla eta, kontzejuak erabakitzen duenaren arabera.

Azken xedapena

Eguneratze hau ALHAOn osorik argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Ordenantzaren aldaketa honek indarra izango du ALHAOn osorik argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, harik eta aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

Erabaki honek administrazio bidea agortzen du, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, egokitzen jotzen den beste edozein errekurtsu ere badago jartzea.

Arroiabe, 2026ko irailaren 1a

Lehendakaria

JULIA MARIA LIBERAL LIBERAL